

## Oroitzapenen alfabetoa

**A** letrarekin, Abadiño esango dut. Aita Abadiñokoa da, eta, txikitan, udan, askotan joaten ginen hara. Gauean, kalean jolasten ginen. A zer emozioa! Asko gustatzen zitzaigun! Gehienetan, harrapaketan aritzen ginen, baina, batzuetan, ezkutaketan ibiltzen ginen eta nik beldur handia pasatzen nuen, ez zitzaidan iluntasuna gustatzen, baina ez nuen esaten eta beti egoten nintzen ahizpa nagusiaren ondoan. Jakina, ahizpa nirekin haserretzen zen; ez nuen bakean uzten!

**D** letrarekin, danborra esango dut. Niri umetan asko gustatzen zitzaidan danborra jotzea, eta beti eramaten nuen kalera. Toki guztietan jotzen nuen, rapetaplan, rapetaplan! Etxekoak kokoteraino zeuden, baina ni ez nintzen isiltzen! Gaur egun bateria jotzen dut musika-talde batean.

**B** letrarekin, ea, Basakabi jatetxea esango dut. Txikitan, Basakabi jatetxean ospatzen nuen urtebetetzea familiakoekin. Niri asko gustatzen zitzaizkidan hango krocketak, eta platerkada handi bat eskatzen zuten niretzat bakarrik, a zer poza! Gero, gauean, tripako mina izaten nuen, baina berdin zitzaidan, nik beti eskatzen nituen! Oraindik jaten ditut, baina ez naiz pasatzen!